

tasunaren bidez. Ongi aztertu du gai auxe. Beste mintzaki askok beren batasunaren alde egin dituzten lanak esanda gero, oarpen ta arautxo batzuk adierazi dizkigu, guk ere zerbait egin dezagun arazo bikain ontan.

Lan au irarkoletan dago ta gure EUSKERA-n argitaratuko da.

II. — Aita Intzak, papertxoetan bildurik dauzkan itzak ekañi dizkigu. Baitare, esakun, atzotitz eta beste itz politak, eñiak dakizkienak.

III. — Altube jaunak ere ekañi dizkigu Iztegi beñiari dagozkion beñi-txorta batzuk.

IV. — Gorostiaga jaunak bere lan bat irakuñi du. *La declinación vasca en el Libro de REFRANES Y SENTENCIAS.*

Itzaurétxo baten ondoren, adierazirik zer esan bear duen bere lanean, lan auxe ederki darabilki. Ekañi dizkigu *declinación* onen gora bera guziak, alako REFRANES Y SENTENCIAS-en agiri diranak.

Euskaltzain jaunak zoriopenak eman dizkiote, ta auñerontz jaraitzeko txalobideak.

Ta besterik izan ez da, otoitzez amaitu da batzar-aldi auxe.

Donostian, Eusko-ikaskuntzaren gela nagusian,
1934-ko Lotazilaren 20-an.

Batzar ontan jaun auk bildu ziran: Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea eta Gorostiaga. Otoitzez asi da.

I. — Iztegirako itz beñiak sortzen jardun degu.

II.— Iztegi beñiaren Bilboko irarlea atzerati-xamar dabilkigu, gurekin dituen lanetan. Lan abek lenbailen gure eskuan izan ditzagun, epe bat jañi bear zaio, bestelaz itunbena ezetsi.

III.— Eguskitza jaunak *tokamen* (partilla) zer esan nai duen esan digu. Beste itz batzuk iztegirako dartzki.

IV.— Ormaetxea jaunak beste itz batzuk ekañi dizkigu.

V.— Aita Intzak, bere anai Aita Etxalar-ek emandako itzak irakuñi dizkigu.

VI.— Lopez Conde jaunak ikeñaldi bat egin digu, ta iztegi beñitzaz luzaro itz egin.

Ta beste gai batzuk bigaramonerako utzi ditugu. Otoitz egin-da, amaitu degu batzañaldi auxe.

Donostian, Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1934-ko Lotazilaren 21-an.

Batzar ontan aurrekoan aipaten diran jaun berak bildu dira eta ganera Etxegarai jauna. Otoitzez asi da.

I.— Aita Intzak, ekañi dituen itzak irakurtzen jañaitu du.

II.— Elissalde jaunak abere-izenak ekañi dizkigu, Bidaso-andik aldekoak.

III.— Altube jaunak lan bat irakuñi digu, Goros-